

“EUSKALDUNON EGUNKARIA”REN ETA AUZIPETUEN ALDE

Ez zuen gertatu behar, baina 2003ko otsailean, Espainiako Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen, euskarazko egunkari bakarra, eta zuzendaritzako kide batzuk atxilotu zituen, Guardia Zibilaren txosten batean oinarrituta. Atxilotuetako batzuek Poliziaren eskuetan egon ziren bitartean torturatu egin zituztela salatu zuten.

Fiskaltzak kasua behin betiko artxibatzeko eskatu zuen, akusazioek behar besteko oinarririk ez zeukatelakoan. Hala ere, Auzitegi Nazionalak, AVTren eta Dignidad y Justicia herri akusazioa aintzat hartuta, epaiketa egitea erabaki du, eta datozen asteetan hasiko da.

Euskaldunon Egunkaria ixtea eta zuzendaritzako kideak epaitzea arbuia behar dugula uste dugu, ondoko arrazoiengatik:

- Adierazpen askatasunaren ukazioa eta informazio pluraltasunaren aurkako eraso delako. Bere burua demokratikotzat daukan estatu orok printzipio horiek errespetatu eta defendatu behar ditu.
- Euskararen eta, oro har, euskal kulturaren aurkako eraso argia delako, baita euskal herritarrek komunikabide propioak garatzeko daukaten eskubidearen aurkakoa ere.
- Auzipetuetako batzuk torturatu izana erabat onartezina delako. Tortura horiek Espainiako estatuan izan diren tratatu txarren salaketa multzo luzeko parte dira eta Nazio Batuen Erakundeko kontalariak berak eman du torturen berri.

Horregatik, gertakari horiek salatzeke deia egiten dugu. Gizarteari epaituko dituzten pertsonen elkartasuna adierazteko eskatzen diogu, baita auzibide honek eta beste batzuek zapaltzen dituzten eskubide demokratikoak defendatzeko ere, eskubide horien murrizketak guztioi eragiten baitigu.

Interesa daukaten talde eta pertsona guztiei eskatzen diegu adierazpen honekiko atxikimendua adierazteko eta berau zabaltzeko, auzi honetan izan den askatasun murrizketa salatzearen egingo diren kanpainetan eta ekintzetan parte hartuz. Horrez gainera, auzipetuei elkartasuna adierazteko deia egiten diegu.

Ba al dakizu
Espainiako estatuan
botere publikoek
egunkariak
ixten dituztela?

Horixe da
‘Euskaldunon
Egunkaria’-ren kasua



- 1.- *Euskaldunon Egunkaria* 1990ean sortu zen eta itxi zuten arte euskaraz argitaratu zen egunkari bakarra izan zen. 36ko gerran ahalegin iragankor eta ausart bat izan zen, *EGUNA* egunkaria, baina egoera zail hartan 1937ko uztailera arte iraun zuen; hau da, frankistek Bilbo hartu zuten arte.
- 2.- *Euskaldunon Egunkaria*-ren lerro editorialean hainbat ezaugarri nabarmentzen ziren: independentea izatea, plurala, aurrerakoia, nazionala, euskararen sustatzailea...
- 3.- Enpresa argitaratzailea 1990ean sortu zen, 1.500 bat akziodunen ekarpenarekin.
- 4.- 2003ko otsailean, Auzitegi Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen eta hamar lagun atxilotu zituen (zuzendaritzako bederatzi kide eta egunkariaren ardura organoekin inolako loturarik ez zeukan beste bat). Horietatik bostek salatu zuten Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta egon ziren bitartean torturatu egin zituztela. Denen artean, 30 hilabete eman dituzte preso.
- 5.- ETako kide izatea leporatu diete, baina ez dago ez oinarririk, ezta inolako frogarik ere.
- 6.- Fiskalak kasua artxibatzeko eskatu du, froga faltagatik. Hala ere, eta akusazio pribaturik ez dagoen arren, Auzitegi Nazionalak epaiketa egitea erabaki du, AVT eta Dignidad y Justicia aurkeztutako herri akusazioan bakarrik oinarrituta. Bi elkarte horiek 12 eta 14 urte bitarteko espetxe zigorra eskatu dute *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaritzako bost kide ohirentzat.

7.- Madrilén egingo dute epaiketa, datozen asteetan, eta baliteke botere publikoek eta zenbait komunikabidek isilean eduki nahi izatea.

8.- *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten egun berebean, langileek euskarazko egunkari bat kaleratu zuten, *Egunero*, eta lau hilabete geroago *Berria* egunkaria sortu zuten, 24.040 akziodunen laguntzarekin. *Berria*-k hartu du *Euskaldunon Egunkaria*-ren lekukoa, euskal balioen eta kulturaren defentsari dagokionez.

9.- Itxieraz geroztik, Euskal Herrian eta Espainiako estatuan hainbat elkartasun ekintza izan dira. Horien artean, nabarmentzekoak dira Katalunian, Madrilén, Galizian, Valentzian eta Kanarietan egindakoak. *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierak nazioarteko komunikabideetan izan zuen oihartzuna Euskal Herriko auzi batek inoiz izan duen handiena izango da, segur aski.

10.- Adierazpen askatasunaren murrizketa larria da hau, informazio pluraltasunaren aurkako eraso eta euskal kultura eta hizkuntza garatzeko eskubidearen aurkakoa, baita giza eskubideen aurkakoa ere, nozitutako torturengatik.

**Borroka honek guztioi eragiten digu
elkartasuna adieraz ezazu**

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.egunkaria.info

Egunkaria libre!